



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

VIII. legegintzaldia

Iruña, 2013ko irailaren 18a

103. ZK.

A U R K I B I D E A

F S A I L A :

Galderak:

- Galdera, jakitekoa zeintzuk diren industrialdeetako lurzatieen salneurrian eragina duten faktoreak. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- Galdera, CEIN enpresa publikoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak Goi Mailako Kontserbatoriora eta Kontserbatorio Profesionalera eginiko bisitei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (4. or.).
- Galdera, Erronkariko elektrizitate-hornidurari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- Galdera, Nasertic enpresa publikoaren jardueri buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- Galdera, produktuen zuzeneko salmentarako bidea ematen duen legearen garapenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (10. or.).
- Galdera, jakitekoa Osasun Publikoaren Institutuak sukalde zerbitzuari buruzko txostenik igorri duen Osasun Departamentura hura pribatizatu zenetik. Foru Diputazioaren erantzuna (11. or.).
- Galdera, 2010 urteetarako Nafarroako Berdintasunerako Planari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (12. or.).
- Galdera, Foru Administrazioako goi karguen ordainsarien antzintasun sariaren gaineko galderaren erantzuneko 1. eta 2. ataletan aipatu zenbatekoen arteko kontraesanari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- Galdera, Prestazio Handiko Trenaren Nafarroako korridorearen eraikuntzari loturiko 2012ko kontusailei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- Galdera, Nafarroak Estatuari egin beharreko ekarpenera bideratutako 2012ko kontusailari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).
- Galdera, departamentu desberdinetako irisgarritasun-erregelamenduak eta -planak idazteari buruzkoa, Irisgarritasun Unibertsalari eta Orentzako Diseinuari buruzko 5/2010 Foru Legeak ezartzen duen moduan. Foru Diputazioaren erantzuna (18. or.).
- Galdera, Elizondoko saihezbidea egiteko lanei gehitutako zubia eraikitzeko eta amaitzeko epeen gaineko aurreikuspenei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (19. or.).
- Galdera, anbulantziak Ubarmin klinikan sartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (20. or.).

- Galdera, Nafarroako Foru Komunitateko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako 2013-2014 ikasturterako aurrematrikulazio kanpainari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, Txulapaingo uraren goi-hornidura dela-eta Toki Azpiegituren Planean aurreikusitako jarduketa gauzatzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (21. or.).
- Galdera, jakitekoa gaur egun zenbat pertsonak egiten duten lan gizarte zerbitzuen sektorean, eta zenbatek 2009tik 2012ra bitartean. Foru Diputazioaren erantzuna (22. or.).
- Galdera, Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuko aldi baterako kontratudun langileei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (25. or.).
- Galdera, Leitzako Plazaolaren geltokiko lanak finantzatzeko baliatuko den kontusailari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (26. or.).
- Galdera, Bidasoako Bide Berdeko Legasa-Doneztebe zatiaren titulartasunari eta bertan izandako luizia konpontzeko arduradunari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).
- Galdera, jakitekoa Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak erantzun ote dion zenbait toki entitatetako ordezkariak Yolanda Barcina lehendakariarekin bilera egiteko aurkezturiko eskariari. Foru Diputazioaren erantzuna (27. or.).

F saila:
GALDERAK

Galdera, jakitekoa zeintzuk diren industrialdeetako lurzatiaren salneurrian eragina duten faktoreak.**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Manu Ayerdi Olaizola jaunak egindako galderaren erantzuna, jakitekoa zeintzuk diren industrialdeetako lurzatiaren salneurrian eragina duten faktoreak, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko otsailaren 18ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Atxiki gabeko foru parlamentari Manu Ayerdi Olaizola jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du jakiteko zer elementuk, faktorek eta irizpidek esku hartzen duten industrialdeetako lurzatiaren salmenta-prezioan, batzuen eta besteen artean dauden aldeak eraginez” (8-13/PES-0021). Hona Nafarroako Gobernuak Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilariaren erantzuna:

Kontuan hartzen den oinarritzko irizpidea da industrialdeko sustapenaren kostu-prezioa, urtero KPlaren arabera berdindua. Halere, zenbait faktorek prezioan eragin dezakete, merkatuaren eta koiuntura ekonomikoaren arabera.

Laurogeita hamarrek hamarkadaren amaieran, halako atonia bat aurkitu genuen lurzatiaren salmentan, eta egokitzen joan zen zenbait industrialdeetako prezioak gutxitzea, inbertsiorako erakargarriagoak izan zitezkeen. Kostuaz beherako prezioa izan zuten 2000ra arte.

2001etik aurrera, egokitzen joan zen berriz ere kostu-prezioetara iristea, baina ez bat-batean, urte bakar batean, baizik eta KPlaz gorako igoerak pixkanaka aplikatuta.

Irizpide hori antzina sustatutako industrialdeei aplikatu zitzaion, eta data horietan sustatutakoei dagokienez, berriz, onetsi zen azaleraren kostuak haiei zuzenean salmentan kargatzea, salbuespen batekin: Izizko industrialdea (Galoze). Izan ere, Pirinio aldean kokatuta dagoenez, oso zail gertatzen da bertara inbertsioak erakartzea. Beraz, prezioa artifizialki baxu mantendu da.

KPlaz gorako igoerak 2007an amaitu ziren. Izan ere, urte hartatik aurrera joan zen prezioak, aipatutako salbuespenarekin, egoki gaurkotuta zeudela. 2008ko ekitaldian, prezioei KPla gehitu zitzaion. 2009tik aurrera, berriz, lurzoruaren eskara txikia tarteko, prezioari eutsi zaio inongo igoerarik aplikatu gabe.

Industrialde desberdinen artean gertatzen diren prezio-diferentziak, Izizko kasuan izan ezik, sustapenaren kostuei zor zaizkie.

Caparrosoko eta Tuterako Montes del Cierzoko industrialdeak azalera handiko enpresak ezartze-ko industrialdeak dira. Betekizun eta kontsumo oso desberdinak dituzte, kasuko enpresa-motaren arabera. Hori dela eta, ezinezko gertatzen da ratio bat ezartzea lurzatiari Lurzoruaren Legeak eskatzen dituen hiri-zerbitzuak emateko, eta enpresa bakoitzaren kargura gelditzen da kasuko konpainiekin ematen duten zerbitzuaren horniduraren gaineko bankakako kudeaketa (ura, saneamendua, energia elektrikoa eta abar).

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko martxoaren 8an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, CEIN enpresa publikoari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak CEIN enpresa publikoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko otsailaren 18ko 18. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko martxoaren 11n

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du, CEIN enpresa publikoko langileen kudeaketarekin lotutako gai batzuk eza gutze aldera (PES-0023). Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuak Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak:

CEIN kapital publikoko merkataritza sozietate bat da. Sozietate horretako langileen kudeaketa Enpresa Zuzendaritzak erabaten du aurrera, lan arloan indarra duten legeak betez. Enpresa Zuzendaritzak, aldizka, enpresako Administrazio Kontseiluari informazioa ematen dio bere estrategiari, bere kudeaketari eta kontseilu horrek planteatzen dizkien gai guztiei buruz.

“Aldi bereko kontratazio-politikei” dagokienez, ez da ongi ulertzen zer galdetu nahi den, zeren eta lan arloan indarra duten legeetan ez baita “aldi bereko kontrataziorik” jasotzen.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko martxoaren 6an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak Goi Mailako Kontserbatoriora eta Kontserbatorio Profesionalera eginiko bisitei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Amaya Zarranz Errea andreak egindako galderaren erantzuna, Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuak Goi Mailako Kontserbatoriora eta Kontserbatorio Profesionalera eginiko bisitei buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko otsailaren 25eko 21. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko martxoaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularrari atxikitako foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak idatziz erantzuteko galdera egin du, jakin nahi baitu Hezkuntza Ikuskaritzako Zerbitzuak zenbat bisita egin dituen Goi Mailako Kontserbatoriora eta Kontserbatorio Profesionalera eta zenbat kexa edo espediente ireki zaizkien

irakasleei bisita horien ondorioz (8-13/PES-00026). Zerbitzu eskudunak igorritako txostena ikusita, honako erantzuna eman du Nafarroako Gobernuak Hezkuntza kontseilariak:

Lehenbizi, esan behar dizut soilik 2005/2006 ikasturtetik aurrerako datuak dauzkagula.

Aurrekoa esanda, jakitera ematen dizut, 2005/06 ikasturtetik hasi eta gaur arte, 94 bisita egin direla aipatutako ikastetxeetara; horietatik, 42 bisita egin dira Musika Kontserbatorio Profesionalera eta 52 bisita Goi Mailako Musika Kontserbatoriora.

Bisita horien ondorioz, 9 kexa jaso dira guztira, eta espediente bat ireki da irakaskuntzarako pres-takuntza dela kausa.

Hori guztia jakinarazten dizut Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko martxoaren 7an

Hezkuntzako kontseilaria: José Iribas Sánchez de Boado

Galdera, Erronkariko elektrizitate-hornidurari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ana Beltrán Villalba andreak Erronkariko elektrizitate-hornidurari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko otsailaren 25eko 21. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko martxoaren 15ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Ana Beltrán Villalba andreak idatziz erantzuteko galdera egin du azken ekaitzaren ondorioz Erronkarin argindarra beste behin moztearekin lotutako zenbait gairi buruz (8-13/PES-0027). Hau da Nafarroako Gobernuo Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguako kontseilariaren erantzuna:

Sektore Elektrikoari buruzko azaroaren 27ko 54/1997 Legeko 41.1 artikulua ezartzen du banaketa-enpresen betebeharrak izan behar diren jarduerak baimendutako moduan eta aplikatzekoak diren arauen arabera egitea, banaketa zerbitzua modu erregular eta jarraituan emanez, ezartzen diren kalitate-mailekin, eta banaketa elektrikorako

sareak behar diren kontserbazioko eta egokitasun teknikoko baldintzetan mantenduz.

Lege horrek 48.2 artikuluan ezartzen du Estatuko Administrazio Orokorrek zerbitzuaren kalitateari buruzko adierazle objektibo batzuk finkatuko dituela, bai eta adierazle horietarako tarte batzuk ere. Horiek, izan ere, bete beharrekoak izan dira bai banakako erabiltzaileen kasuan bai banatzaile bakarrak zerbitzua ematen duen eremu geografiko oso bakoitzaren kasuan ere. Kalitate-maila horiek Energia elektrikoaren garraio, banaketa, merkatu-ratze eta hornidurarako jarduerak eta instalazioak baimentzeko prozedurak arautzen dituen abenduaren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuko 104. eta 106. artikuluetan ezarrita daude.

Aipatutako artikuluetan ezartzen den bezala, banatzaile bakoitzak jarduera garatzen dueneko eremuei esleitutako eremu-kalitatearen maila eutsi beharko die. Maila horiek kalkulatu dira probintzian bildutako udalerriaren guztizkoaren urteko jarraitutasun faltaren batez bestekoaren gisara, haiei buruz egindako sailkapenaren arabera (hirikoa, sasi hirikoa, landako eremu kontzentratua, landako eremu barreiatua).

Horniduraren jarraitutasuna definitzen duten adierazleak TIEPI, TIEPIko 80ko pertzentilla eta NIEPI dira, eta honakoak dira haien muga-balioak, urte natural bakoitzaren barrenean, soilik ezusteko etenak kontuan hartuta:

	TIEPI (orduak)	TIEPIko 80ko pertzentilla (orduak)	NIEPI (zenbakia)
Hiriko eremua	1,5	2,5	3
Sasi hiriko eremua	3,5	5	5
Landa eremu kontzentratua	6	10	8
Landa eremu barreiatua	9	15	12

Azkenik, adierazi beharra dago kalitate adierazleak ez betetzearen ondoriozko arau-hausteak azaroaren 27ko 54/1997 Legeko 60.11, 60.12 eta 61.6 artikuluetan jasota daudela.

1. galdera. Nafarroako Gobernuak Erronkarin elektrizitate-hornidura egiten duten enpresei azken bost urteetan irekitako espediente-kopurua:

Erronkari Ibarrean energia elektrikoaren banatzen duen enpresa Endesa Distribución Eléctrica, SL da (lehenago, ERZ Endesa izena zuen). Bestalde, Distribución Eléctrica Isaba SLUK Izabako udalerriaren banatzen du energia elektrikoaren.

Azkeneko 5 urteetan, erabaki da bi espediente irekitzea Endesa Distribución Eléctrica SL enpresari:

Lehenengo espedientea: 2008an, luze iraun zuen hornidura elektrikoaren mozketaren ondoren, Enpresa Zuzendaritza Nagusiak, abenduaren 15eko 3918/2008 Ebazpenaren bitartez, erabaki zuen informazio-aldi bat irekitzea, ezagutze aldera zein egoera zehaztetan gertatu zen mozketaren. Horren arabera erabakiko zuen enpresa banatzaileari zehapen prozedura bat irekitzea komeni zen ala ez.

Bigarren espedientea: 2013ko urtarrilean horniduran izandako mozketak batzuen ondoren, Industria, Energia eta Berrikuntza Zuzendaritza Nagusiak, urtarrilaren 5eko 153/2013 Ebazpenaren bitartez, erabaki zuen alde zuzeneko informazioaldi bat irekitzea, egitateak argitze aldera eta erabakitzeko aldera ea Endesa Distribución Eléctrica SL enpresa bere betebeharrak betetzen ari zen ala ez, zehazki horniduraren kalitateari dagokionez.

2. galdera. Espediente horien azken emaitza eta egungo egoera:

Lehenengo espedientea:

2008ko abenduaren 19an, Enpresa Zuzendaritza Nagusiak bilera bat egin zuen enpresa banatzaileko arduradunekin. Bilera horren ondorioz, ezarri zen Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren eta ERZ Endesa enpresaren arteko lankidetzak-protokolo bat sinatzeko lanean hasteko beharra. Horren bidez, biek batera eta modu koordinatuan bultzatuko zuten Erronkari Iba-

rarrerako garapen elektrikoa, zeren eta beharrezko-tzat ikusten baita inbertsio batzuk egitea banaketa-instalazioetan, eskualdeko zerbitzuaren kalitatea egokia izan dadin.

Nafarroako Gobernuaren 2009ko urriaren 19ko Erabakiaren bitartez, baimena eman zitzaion Enpresa Zuzendaritza Nagusiari urte anitzeko gastu-konpromiso bat har zezan diru-laguntza bat emateko, "2010-2012 urteetan Erronkari Ibarrerako Hornidura eta Azpiegitura Elektrikoaren Kalitatea Hobetzeko Plana" betetze aldera.

Enpresa zuzendari nagusiaren azaroaren 25eko 2838/2009 Ebazpenaren bitartez, diru-laguntza bat eman zitzaion Endesa Distribución Eléctrica SLUri, "2010-2012 urteetan Erronkari Ibarrerako Hornidura eta Azpiegitura Elektrikoaren Kalitatea Hobetzeko Plana" bete zezan.

Diru-laguntza hori emateko hitzarmenean, honako jarduketak biltzen dira:

Jarduketa	Deskribapena	Norainokoa	Zenbatekoa
Gazteluberri – Biotzari	Erdi tentsioko linea ordeztea (8,4 km)	Linea berria, LA-56 eroalearekin	400.000 €
Erronkari – Urzainki	Erdi tentsioko linea ordeztea (5 km)	Linea berria, LA-110 eroalearekin	350.000 €
Urzainki – Izaba	Erdi tentsioko linea ordeztea (4 km)	Linea berria, LA-110 eroalearekin	280.000 €
Petilla - Isuerre	Erdi tentsioko linean hobekuntzak egitea (8,5 km)	Euskarrien % 10 eta eroalearen % 100 aldatzea	100.000 €
Erronkari – Burgi	Erdi tentsioko linea egokitzea	Prest uzten da zirkuitu bikoitza jartzeko	480.000 €
Guztira			1.610.000 €

2013ko otsailerako aipatutako jarduketetatik hiru beteta daude. Haietarako, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak honako diru-ekarpenak egin ditu:

Jarduketa	Zenbatekoa	Nafarroako Foru Komunitatearen ekarpena
Gazteluberri – Biotzari	240.160,76 €	120.080,38 €
Petilla - Isuerre	151.135,77 €	50.000,00 €
Erronkari – Burgi	1.153.251,22 €	240.000,00 €
Guztira	1.544.547,75 €	410.080,38 €

Gainerako jarduketak izapidetze administrati-
boko egoera desberdinetan daude.

Honakoa izan da kalitate-adierazleen bilakaera
(enpresa banatzaileak oraindik ere ez ditu eman
2012ko datuak):

- Landa eremu kontzentratua:

	2011	2010	2009	2008	2007	2006	2005
TIEPI	2,683	1,076	9,95	27,61	5,49	7,37	9,39
TIEPIko 80ko pertzentilla	3,738	1,269	13,56	36,32	10,64	8,37	11,02
NIEPI	0,748	2,464	6,29	7,66	2,57	2	10,15

- Landa eremu barreiatua:

	2011	2010	2009	2008	2007	2006	2005
TIEPI	4,326	3,396	17,96	14,07	5,76	11,27	9,33
TIEPIko 80ko pertzentilla	4,55	6,24	20,3	18,94	11,47	12,63	13,56
NIEPI	2,115	5,46	9,46	5,99	4,47	3,32	8,65

Bigarren espedienteak:

Otsailaren 5eko 153/2013 Ebazpenaren bitar-
tez, Industria, Energia eta Berrikuntza Zuzendar-
tza Nagusiak Endesa Distribución Eléctrica SLri
eskatu zion informazio jakin bat aurkez zezan,
zehazte aldera ea enpresa hori bere betebeharrak
betetzen ari zen.

Endesa Distribución Eléctrica, SLri eskatu zaio,
besteak beste, txosten tekniko bat aurkez dezala
Erronkari Ibarreko herrietara hornidura elektrikoa
banatzeko sarearen egungo egoerari buruz,
zehaztuz nolako gorabeherak gertatu diren 2013ko
urtarrilean, zein diren haien arrazoiak eta zein
neurri hartu diren haiek direla eta. Gainera, eskatu
da informazioa eman dezan banakako hornidura-
ko kalitaterako eta eremuko kalitaterako ezarritako
mailak betetzeari buruz, bai eta "2010-2012 urtee-
tan Erronkari Ibarreko Hornidura eta Azpiegitura
Elektrikoaren Kalitatea Hobetzeko Planean" jasota-
ko jarduketa batzuk betetzeerakoan izandako atze-
rapenaren justifikazioari buruz.

Une hauetan, Endesa Distribución Eléctrica
SLk eskatutako dokumentazioa aurkezteko zain
gaude.

3. galdera. Espediente horiek direla-eta enpre-
sa horiei ezarritako zehapenen kopurua.

Gaur arte, Endesa Distribución Eléctrica, SLri
ez zaio inongo zehapenik ezarri lehen aipatutako
espedienteak direla eta.

4. galdera. Nafarroako Gobernuak espediente
horiek direla-eta izandako diru-sarrerak.

Gaur arte, Nafarroako Gobernuak ez du inongo
diru-sarrerarik jaso lehenago aipatutako espedien-
teak direla eta.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parla-
mentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko martxoaren 8an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu-
kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, Nasertic enpresa publikoaren jardueri buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak Nasertic enpresa publikoaren jardueri buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko otsailaren 25eko 21. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko martxoaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nasertic enpresa publikoarekin lotutako zenbait gairi buruz (8-13/PES-00007). Hauxe da Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

1. Zer esparrutakoa izanen da enpresa horren jarduera?

Oro har, jarduera sozialeko esparruak zehaztu aurretik, Naserticen egungo helburu sozialak zehazten du enpresaren ardatza dela administrazio publikoei eta haien menpeko erakunde, sozietate edo entitateei zerbitzuak ematea, bai eta, modu subsidiarioan, beste sozietate, entitate edo partikular batzuei zerbitzuak ematea ere.

Ildo horretatik, eta sozietateko zuzendari kudeatzaileak legebiltzar horri 2012ko maiatzean sozietatearen plana azaltzerakoan jakinarazi zuen bezala, sozietateak, funtsean, informazio sistemeekin, telekomunikazioekin, laborategiarekin eta komunikazioarekin lotutako zerbitzuak ematen ditu, betiere lehentasuna emanez Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari.

Naserticen egungo bezeroak, plan zuzendaria berak ere jasotzen duen bezala, Nafarroako Gobernu departamentuak eta beste administrazio publiko batzuk dira, bai eta Nafarroako sozietate publikoak ere. Zenbait kasutan, eta funtsean gure erkidegoan enpresa pribatuek ematen ez dituzten zerbitzuak emate aldera, Nasertic arduratzen da gabezia horri konponbidea ematen. Esate baterako, berme-zentroko zerbitzuak (bigarren mailako CPDa deitutakoa), telebista banatzeko zerbitzuak, eta ekipoei osatu emateko eta dorrea erabiltzeko zerbitzuei estaldura mugikorra emateko kokalekuak (housing), telekomunikazio operadoreen kasuan.

Telebista banatzeko zerbitzuaren barruan, kontuan hartu beharra dago ezen, jabari publikoko ondasunak direnez, zerbitzu publiko unibertsalari atxikita egoteagatik halako zentroak dituztenak, Nafarroako Gobernuaren erabakiaren bitartez zehaztu direla telekomunikazio operadoreek, hala kotzat behar bezala gaituta baldin badaude, zentro horiek erabiltzeko baldintzak. Baldintza horiek gardenak eta ez-baztertzailak dira.

2. Nafarroan ba al dago esparru horretan jarduten duen enpresa pribaturik?

Plan zuzendarian deskribatutako jardueren multzoa ikusita, egia esan badaude nazio esparruko enpresa batzuk Nafarroan Naserticen antzeko jarduketa-ildo batzuk garatzen dituztenak. Ez dakigu zein den zehazki haien jarduera, ez eta jardueren betetze-maila zehatza ere. Horri dagokionez, Nasertic beti bereziki arretatsua izan da enpresa pribatuekiko harremanaren izaera subsidiarioari eta sektore pribatuko jarduketan izaera osagarriari eusterakoan. Enpresa horietatik asko, Naserticekin batera, Nafarroako IKT Enpresen Elkarteko (ATANA) kideak dira.

Gainera, kontuan hartu beharra dago Nasertic, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren tresna izaera duen entea den aldetik, esleitua duela telekomunikazio zerbitzuak eta sistemak ezartzea, kudeatzea eta ustiatzea, zerbitzu horiek interes orokorraren zerbitzuan jartze aldera. Hori xe gauzatu zen Azpiegituren eta Telekomunikazioen Plan Zuzendariarekin, banda zabalaren irismena bermatuz Internetera sartzeko inongo zerbitzuren estaldurarik ematen ez zen eremuetan, Naserticen kokalekuak erabiltzen zuen sare publiko baten bitartez; eta gauza bera egin da telebista banatzeko zerbitzuarekin, zerbitzu unibertsalaren izaera bermatuz. Horrek, berarekin dakar zerbitzuen gutxieneko multzo bat eskaintzea amaierako erabiltzaile guztiei, modu oneko prezio batean. Multzo horren barrenean egon daiteke, batzuetan, amaierako erabiltzaile batzuei zerbitzu batzuk ematea merkatuko baldintzan normalez bestelako prezio batzuetan.

3. Nafarroako Gobernuak neurtu al du esparru hori betetzen duten egungo enpresetan Naserticen jarduerak izanen duen eragina?

Naserticen jarduera, une hauetan da batu diren sozietateek –Producción Informática de Navarra S.L. (Pin) Obras Públicas y Telecomunicaciones de Navarra S.A. (Opnatel) y Navarra de

Servicios S.A. (Nasersa)– lehen egiten zituzten jarduerak egiten jarraitzea, alegia, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari, lehentasunez, eta gainerako administrazio publikoei eta Nafarroako sektore publikoari, informazio sistemekin, telekomunikazioekin, laborategiarekine ta komunikazioarekin lotutako zerbitzuak ematea, eta zerbitzu horiek berak ematea horixe eskatzen duten erakunde pribatuei, betiere hondarreko izaeraz eta zerbitzu jakin batzuei dagokienez (housing zerbitzuak telekomunikazio zentroetan eta CPD deitutakoa). Hau da, aurrez esandakoa berretsiz, Naserticek jarraituko du bere lana egiten, nagusiki Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren eta haren erakunde publikoen tresna izaerako entea den aldetik, Nafarroako Gobernuaren 2011ko maiatzaren 30eko Erabakiaren arabera.

4. Zer argudio, helburu eta azterlanek babesten dute enpresa publiko horrek xede hori izatea? Kasuko dokumentazioa bidaltzeko eskatzen dugu.

Naserticen egungo jarduera eta ardua arestian aipatutako sozietate publikoek egiten zituzten jarduerekin jarraitzea da, sozietate horiek 2011n batu baitziren. Jarduera horiek, adierazi dugun bezala, Nafarroako Parlamentuko Lehendakariitzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko Batzordearen 2012ko maiatzaren 9ko bileran azaldu genituen.

Halaber, Administrazioak Nasertic bezalako tresna izaerako ente bat eduki nahi du, zeren eta Administrazioari aukera ematen baitio lehen aipatutako jardueretan espezializatuta dagoen entitate bat edukitzeko, behar diren jarduketetan euskarri-lanak egin ditzan.

Telekomunikazioen arloko zerbitzuak eta azpiegiturak edukitzea gakoa da produktibotasun eta

hezkuntza mailarik onenak lortzeko, bai eta enpresen berrikuntza eta globalizazioa pizteko ere.

Telekomunikazioko azpiegituren garapenerako eta hedapenerako estrategiak bermatu behar du herritarrei eta enpresei ematen zaizkien zerbitzuen presentzia, bilakaera eta zabalpena, betiere iraunkortasun ekonomikoko eta lehiakortasuneko esparru baten barrenean.

Hori guztia dela eta, Naserticek –jakinda telekomunikazioek nolako eragina duten Nafarroako garapen ekonomikoan eta berrikuntzan– helburu du telekomunikazio-azpiegiturak zabaltea, iraunkortasun ekonomikoko ikuspegi batekin eta gizartearen ardatza izateko ikuspegiarekin.

Hala eta guztiz ere, Nasertic helburu horrekin jardutea egokia den ala ez den erabakitzeak azterketa zabalagoa eskatzen du xede horretarako garrantzitsuak diren gai batzuei buruz, telekomunikazioen arlo esparru orokor indardunaren definizioari erreparatuta. Izan ere, Estatuak Konstituzio-ko 149.1.21) artikuluan aitortzen duen eskumen eksklusiboaren babesean, Telekomunikazioei buruzko azaroaren 3ko 32/2003 Lege Orokor indardunak interes orokorreko zerbitzu baten gisara egituratzen ditu telekomunikazioak; hain zuzen ere, lehia askeko araubidean ematen den zerbitzu baten gisara. Bada, zerbitzu-ematea eraginkortasun, objektibotasun, gardentasun eta bazterketaezaren printzipioen arabera gauzatu beharra dago, halako moduz non bermatuko baita zerbitzu hori Nafarroako biztanleriaren zatirik handienari ematen zaiola, biztanle horiek dauden kokapen geografikoan daudela ere, kalitate jakin batekin eta modu oneko prezioan.

Iruñean, 2013ko martxoaren 18an

Lehendakariitza, Justizia eta Barne Departamentuko kontseilaria: F. Javier Morrás Iturmendi

Galdera, produktuen zuzeneko salmentarako bidea ematen duen legearen garapenari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, produktuen zuzeneko salmentarako bidea ematen duen legearen garapenari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko otsailaren 25eko 21. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko martxoaren 18an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du "produktuen salmenta zuzena ahalbidetzen duen legeari" buruz (8,13 PES 00030). Hauxe da Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilariaren erantzuna.

2010eko maiatzaren 3an, 54. NAO-n, argitaratu zen apirilaren 20ko 8/2010 Foru Legea, Nafarroan nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiatzei lotutako produktuen salmenta zuzena arautzen duena. Foru lege horrek 2010eko uztailaren 3an hartu zuen indarra.

Foru lege horren xedapen iragankor bakarrak honakoa aurreikusten du: "Nafarroako Gobernuak, sei hilabeteko epean, erregelamendu bidez arautuko ditu, aplikatzekoa den araudiarekin bat eta, zehazki, Europako 852/2004, 853/2004 Erregelamenduekin eta horiek garatzen dituzten arauekin bat, nekazaritzako elikagaien kalitatearen eta segurtasunaren arloko arriskuak kontrolatzeko sistemak eta gainontzeko araudi aplikagarria, nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiatzei lotutako nekazaritzako produktuen salmenta zuzenerako, lege honetan ezarritakoarekin bat".

Garai hartako Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak, aurreikuspen horiek betetzeko, eta haren eskumen-esparruari dagokionez, erregelamendu bidezko garapenari buruzko

proiektu bat egin zuen, zeina, azkenean ez baitzen onetsi, zeren eta aipatutako xedapen iragankorrean erregelamendu bidezko garapenerako ezarritako sei hilabeteko epea amaitu baino lehen, Europan lanean hasi baitzen aplikatzekoa den araudia aldatzeko; zehazkiago, berariazko kalitateari buruzko Europako erregelamenduak aldatzeko. Hain zuzen ere erregelamendu horietan, besteak beste, zuzeneko salmenta jasota zegoen.

Gaur egun, zuzeneko salmentan eragina duten arau batzuk gutxi-asko garatuta daude, bai Europa mailan, bai Estatu mailan. Esate baterako, Europar Batasuneko Batzordearen esparruan figura hori lantzen ari da, Europa guztian modu harmonizatuan garatzeko. Horretaz gainera, Ministroen Kontseiluak onetsi du Elikagaien katearen funtzionamendua hobetzeko neurriak buruzko Lege Proiektua, zeinak salmenta zuzenari zailtzarik gabe eraginen baitio. Halaber, Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak jakitera eman du Elikaduraren Kalitateari buruzko Legearen aurreproiektua berriz aurkeztuko duela. Proiektu horrek ere eragina izanen du gure produktuen zuzeneko salmentan.

Nolanahi ere, Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko Departamentuak berehala, sektorearekin ados jarrita, Nafarroan nekazaritzako eta abeltzaintzako ustiatzei lotutako produktuen salmenta zuzena arautzen duen apirilaren 20ko 8/2010 Foru Legearen erregelamenduzko garapenari ekin behar dio. Hori, halere, ez da oztopoa izanen, egokia den unean eta ego-kitzat jotzen bada, foru lege proiektu bat bultzatzeko, hain zuzen ere haren bidez produktu horien zuzeneko salmenta arautzeko Europan eta Estatuan onesten den araudiaren esparruan.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikuluan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2013ko martxoaren 18an

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioeko kontseilaria: José Javier Esparza Abaurra

Galdera, jakitekoa Osasun Publikoaren Institutuak sukalde zerbitzuari buruzko txostenik igorri duen Osasun Departamentura hura pribatizatu zenetik.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bakartxo Ruiz Jaso andreak egindako galderaren erantzuna, jakitekoa Osasun Publikoaren Institutuak sukalde zerbitzuari buruzko txostenik igorri duen Osasun Departamentura hura pribatizatu zenetik, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko martxoaren 1eko 25. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko martxoaren 21ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroako Parlamentuko Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak idatziz erantzuteko galdera egin du (PES-00031). Hauxe da Osasun kontseilariaren erantzuna:

Galderaren testua:

“Martxoaren 21az geroztik “Bideko Ama Birjina Ospitaleko sukaldeak kudeatzen ari den Mediterránea de Catering enpresari buruz. Lehendabiziko egunean, profesionalen nahiz gaixoen kritika eta kexa pila egon dira; horien artean, nabarmenak dira antolamendu eta aurreikuspen falta, 3 ordutaraino ere iritsi diren atzerapenak bazkariak banatzean, higijene-neurririk eza, arazoak elikagaien egoerari eta kalitateari dagokionez, eta abar. Gure ustez, gorabehera horiek oso larriak dira, arrisku bat ekar baitezakete ospitale-etako gaixoen osasunari begira.

Osasun Publikoaren Institutuak egindako txostenetik igorri al zaio Osasun Departamentuari, sukalde zerbitzua pribatizatu zenez geroztik, zerbitzu horri dagokionez?”

Urtarrilaren 21az geroztik, orduan hasi baitzen lanean Nafarroako Ospitaleguneko ospitale-janariaren zerbitzu berria, Mediterránea de Catering, SL enpresak kudeatua, Nafarroako Osasun Publikoa-

ren eta lan Osasunaren Institutuak sukaldean funtzionamendu-baldintzen eta janariaren zerbitzu osaren jarraipena egin du. Jarduketa horiek soilik higienari eta elikaduraren segurtasunari lotutako alderdiei buruzkoak izan dira, horren barne dela jardueraren etapa guztien gaineko kontrola, lehen-gaiak jasotzen direnetik hasi eta elikagaien zerbitzura eta Institutuko laborategietan analisiak egiteko elikagaien laginak hartzera bitarte.

Kontrol mota hori bat dator Nafarroako edozein elikadura-enpresari egiten zaionarekin, kontuan hartuta kontrolen intentsitatea eta maiztasuna zehazten direla elikaduraren segurtasun arauen betetzea egiaztatzeko kontrol ofizialei buruzko erregelamenduan ezarritako irizpideen arabera.

Edozein elikadura-jardueraren gaineko osasun kontrolarekin gertatzen den bezala, Institutuaren jarduerak garatzen dira elikaduraren segurtasunari eta higienari buruzko berariazko baldintzen balizko ez-betetzeak antzemateko ezarritako prozedura batzuen arabera, zerbitzuaren ardura duen enpresak behar diren neurriak ezar ditzan aurkitutako akatsak zuzentzeko.

Azaldu berri dudan prozeduran –errutina soil ez prozedura bat da–, ez da sartzen Osasun Departamentuari txostenak igortzea. Hala eta guztiz ere, erantsita bidaltzen dizut Osasun Publikoaren eta Lan Osasunaren Institutuak 2013ko martxoaren 1ean, Osasun Departamentuak eskatuta, egin zuen txostena.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko martxoaren 20an

Osasuneko kontseilaria: Marta Vera Janín

(Oharra: Aipatutako eranskina eskuragarri dute foru parlamentariak, parlamentu-kudeaketako Ágora sisteman).

Galdera, 2010 urteetarako Nafarroako Berdintasunerako Planari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Bikendi Barea Aiestaran jaunak 2010 urteetarako Nafarroako Berdintasunerako Planari buruz egingdako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko martxoaren 1eko 25. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko martxoaren 25ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeko foru parlamentari Bikendi Barea Aiestaran jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Berdintasunari buruzko 2006-2010 Planarekin lotutako gai batzuei buruz (8-13/PES-00032). Hauxe da Gizarte Politiketako kontseilariaren erantzuna:

– Nafarroako Parlamentuko Gizarte Ongizate, Kirol eta Gazteria Batzordeak, 2006ko ekainaren 28an egindako bilkuran, 2006-2010 urteetarako Nafarroako Gizonezko eta Emakumezkoentzako Aukera Berdintasunari buruzko I. Plana onetsi zuen.

– 2006-2010 aldian zehar, urteko jarduera planak egin ziren, eta haietan planeko zenbait arlori lehentasuna ematen zitzaien, eta, horretaz gainera, hartan ezarritako helburuak lortzeko ekintzak definitzen ziren. Aldi horretan, urtero, egin beharreko ebaluazioak egin ziren. Ebaluazio horiek, logikoa den bezala, hobekuntza-arloetarako proposamen gisa balio zuten, hurrengo urteko jarduketara plana prestatzeari begira.

– 2011n, legegintzaldi berriarekin (2011-2015) batera, Gobernuak legegintzaldirako bere konpromisoen artean jaso zuen berdintasunari buruzko beste lege bat egitea, hartan biltzen aldera 2002az geroztik izandako aurrerapen normatibo eta sozialak –izan ere, 2002an, aurreko Berdintasunari buruzko Legea onetsi zen–. Halaber, berdintasun politiken bidez gaur egun bultzatzen ari

diren jarduketak araupetzeko konpromisoa jaso zuen.

– Beste jarduketa plan bat prestatzeko Berdintasunari buruzko Legean oinarritu beharra dagoe-la ulertuta, egokiagotzat jo da lehenengo legea egitea eta hartatik hasita plan estrategiko bat eta urteko plangintza batzuk zehaztea.

– Berdintasunari buruzko legea egitea 2014rako helburu gisa planteatzen da, zeren eta badirudi egokia dela lege horretan jasotzea bai Emakumeen aurkako Indarkeriari buruzko Legea, bai une hauetan Administrazioan ezartzen ari diren genero-berdintasuneko unitateen diagnosi-lana eta jarduketa proposamenak, horien bidez berdintasunaren egoerari buruzko arloz arloko diagnosi zehatzago bat edukiko baitugu.

Hori dela eta, 2011tik, 2006-2010 urteetarako Nafarroako Foru Komunitateko Gizonezkoentzako eta Emakumeentzako Aukera Berdintasunari buruzko I. Planaren indarraldia amaitu den arren, plan hori hartu da esparru orokor gisa, Nafarroako genero-berdintasuneko politiken jarduketaren oinarria baita, urteko lan programak definitzeko orduan.

2011ko eta 2012ko jarduketari dagokionez, Nafarroako Familiaren eta Berdintasunaren Institutuak, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun politikak bultzatzen dituen organoak, urteko plangintza baten arabera jarduten jarraitu du. Plangintza horietan, helburu zehatzak ezartzen dira eta haiek lortzeko neurriak finkatzen dira, eta, horretaz gainera, neurri, programa eta proiektuei buruzko ebaluazio bat egiten da, betiere 2006-2010 urteetarako Berdintasunari buruzko I. Planeko ildo estrategikoekin bat.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko martxoaren 22an

Gizarte Politiketako kontseilaria: Íñigo Alli Martínez

Galdera, Foru Administrazioko goi karguen ordainsarien antzintasun sariaren gaineko galderaren erantzuneko 1. eta 2. ataletan aipatu zenbatekoen arteko kontraesanari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Eloy Villanueva Cruz jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Administrazioko goi karguen ordainsarien antzintasun sariaren gaineko galderaren erantzuneko 1. eta 2. ataletan aipatu zenbatekoen arteko kontraesanari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko martxoaren 11ko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko martxoaren 27an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularreko foru parlamentari Eloy Villanueva Cruz jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du (PES-035/13), zeinaren bidez errepikatzen baitu Foru Administrazioko goi kargudunei antzintasun sari gisa ordaindutako kopuruari buruz idatziz erantzuteko egindako galdera. Hauxe erantzun dio Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak:

PES 005-13 parlamentu-galderaren errepikapenari dagokionez, parlamentari galdegilearen ustez kontraesan bat baitago idazki horretako bi ataletan aipatzen diren kopuruen artean, argitu beharra dago kopuru horiek zuzenak direla, nahiz eta bat ez etorri, kolektibo desberdinei buruzkoak direlako, ondoren azaltzen den bezala.

Lehenengo ataletan hauxe galdetzen da: "Foru Komunitateko Administrazioko eta haren erakunde

autonomoetako behin-behineko langileei, funtzionario ez direnei, antzintasun sari gisa guztira 7.358,84 euro ordaindu zaizkie 2012. urtean." Erantzunean esaten da 2012. urtean, guztira 7.358,84 euro ordaindu direla Nafarroako Administrazioko eta haren erakunde autonomoetako funtzionario ez diren behin-behineko langileen antzintasun sariaren kontzeptuan.

Galderaren bigarren ataletan eskatzen da "2012an nominan aipatu atal horren arabera dirua jaso duten Foru Administrazioko goi karguen zerrenda banakatua." Erantzunean, funtzionario ez diren eta 2012. urtean antzintasun sari gisa dirukopuruak jaso dituzten goi kargudunen zerrenda banakatua dakarren taula erantsi da.

Bi ataletako kopuruak bat ez etortzearen arrazoia da lehenengoan ez daudela sartuta behin-behineko langile guztiak, 2012rako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzko abenduaren 28ko 19/2011 Foru Legeko 8. artikuluko 8. ataletan jasotzen den bezala. Hori dela eta, goi karguei ordaindutako kopuruez gainera, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan dauden behin-behineko langile guztiei ordaindutakoak ere sartzen dira. Bestalde, bigarren ataletan, goi karguen –ez behin-behineko langile guztien– zerrenda banakatua eskatzen da, eta, horrenbestez, kopurua txikiagoa da, zeren eta ez baitira jasotzen goi karguaren izaerarik ez duten behin-behineko langileak.

Iruñean, 2013ko martxoaren 27an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko kontseilaria: F. Javier Morrás Iturmendi

Galdera, Prestazio Handiko Trenaren Nafarroako korridorearen eraikuntzari loturiko 2012ko kontusailei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Prestazio Handiko Trenaren Nafarroako korridorearen eraikuntzari loturiko 2012ko kontusailei buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko martxoaren 11ko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko apirilaren 5ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak informazioa eskatu du Prestazio Handiko Trenaren Nafarroako korridorea eraikitzearekin lotutako 2012ko kontusailei buruz (PES-33/13). Hauxe da Sustapen Departamentuaren erantzuna:

1.- Kontusail horien betetze-maila 2012ko abenduaren 31n, kontusailei hasiera batean aurreikusitako kontzeptuetan:

Estatuko Administrazio Orokorrek, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioak eta Trenbide-azpiegiturak Administrazio Entze Publikoak (ADIF) Zaragoza-Iruña abiadura handiko linea Nafarroan eraikitzeko 2010eko apirilaren 9an sinatutako lankidetzaren hitzarmenean, kostuak hiru kontzepturen arabera bereizten dira:

- Obren exekuzioa (tarteaz pibianatuta dagoen azpi-tarteei dagozkienak).
- Desjabetzeak.
- Proiektuak idaztea, ikuskatzea eta obra zuzendaritza.

2012ko abenduaren 31n, honakoa da egindako inbertsioa:

	Proiektuak, ikuskatzea eta obra zuzendaritza	Desjabetzeak	Obren exekuzioa	Guztira
2009. urtea	228.100,00 €	0,00 €	0,00 €	228.100,00 €
2010. urtea	5.050.528,53 €	0,00 €	0,00 €	5.050.528,53 €
2011. urtea	757.467,71 €	436.836,7 €	161.234,30 €	1.355.538,71 €
2012. urtea	1.061.830,71 €	4.336.906,2 €	11.887.882,61 €	17.286.619,52 €
Guztira	7.097.926,95 €	4.773.742,9 €	12.049.116,91 €	23.920.786,76 €

Hauxe zen hitzarmenean jasotzen zen hasiera-ko aurreikuspena:

Castejón-Iruña tartea Plataforma	Luzera (km)	Kalkulatutako kostuak (euroak, milakotan)*				
		Tartea, guztira,	2011	2012	2013	2014
Castejón-Alesbes	14,50	71,10	7,10	28,40	35,60	
Alesbes-Erriberri	15,00	77,55	7,75	31,00	38,80	
Erriberri-Tafalla	15,00	76,00	7,6	20,40	22,00	26,00
Tafalla-Arrizabalaga	15,19	78,00	7,80	21,20	21,00	28,00
Arrizabalaga-Ezkirotz	10,20	60,00	6,0	24,00	16,65	13,35
Desjabetzeak		10,00	5,00	5,00		
Proiektuak idaztea, ikuskatzea, obren zuzendaritza		15,00	2,00	4,00	5,00	4,00
Guztira	69,89	387,65	43,25	134,00	139,05	71,35

* Litzazioaren oinarria den aurrekontua, BEZa barne

Hau da, hitzarmeneko aurreikuspenen arabera, 2011ko amaierarako 43,5 milioi euro exekutatu behar ziren, eta 2012ko amaierarako, berriz, 134 milioi euro.

2.- Kontusailen guztizko betetze-maila, eginda-ko aldaketak justifikatzen dituzten arrazoiak zehaztuta:

Puntu horri erantzuteko, lehendakariorde Lourdes Goicoechea andreak Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Batzordean, otsailaren 20an, abiadura handiko trenaren kontusaila kontusail zabalgarriak finantzatzeko erabiltzeari buruz esandakoetara joko dut:

“94,1 milioi euroren zabalpenak finantzatzeari dagokionez, esan beharra dago beste gastu-kontusail batzuetan 88,3 milioi euro gutxiago gastatze-arekin finantzatu direla. Finantziatorako gastu-kontusail gisa, nabarmentzekoa da “Nafarroa Plana 2012-85. Abiadura handiko trenaren Nafarroako korridorea eraikitzea” kontusaila, zeinak 58,9 milioi finantzatzeko erabili baita. Gainerakoan, 5,7 milioi euro aurreikusitakoez goitiko diru-sarrerekin finantzatu dira, eta 0,2 milioi, berriz, gerakinarekin.

“Nafarroa Plana 2012-85. Abiadura handiko trenaren Nafarroako korridorea eraikitzea” kontusaila finantziatorako gastu-kontusail gisa hautatu da zeren eta aurrekontu-kudeaketaren ikuspuntutik soila eta gardena baita, behin erabaki ondoren 2012an kontusail horren ez-betetze mailak zabal gaitutako dituela proposatutako finantziatio-

beharrak. Eta hori guztia egin da Nafarroako Foru Ogasunari buruzko 13/2007 Foru Legean ezarritakoari jarraituz. Izan ere, lege horren arabera izan behar baitira aurrekontu-aldaketa guztiak.

Horretan guztian, kontuan hartu da egonkortasun helburua betetzeari begira beste desbideratze positibo batzuk badaudela, Kontabilitate Nazionalako Doikuntzen arloetan, eta desbideratze horiek, blokeoekin batera, aukera ematen dutela bestelako gastu-premia batzuk finantzatzeko.”

3.- Kontusail horietan hasiera batean aurreikusitakoaren eta kontzeptu horiengatik egiaz bete denaren arteko aldea, halakorik bada, ekarri duten arrazoen justifikazioa eta azalpena: 2012ko abenduaren 31rako eginik dauden obrak eta desjabetzeak 1. tarteari dagozkio: “Castejón-Alesbes”. Lehenengo tarte horren oinarriko proiektua 2010eko abenduaren 17an onetsi zen, eta orduan aginduzkoa den informazio publikoko aldia zabaldu zen: EAOn 2011ko urtarrilaren 29an argitaratu zen eta, NAOn, berriz, 2011ko otsailaren 8an.

Proiektuek informazio-azterlanetan onetsitako konponbidea garatzen dute, baina aldaketa tekniko batzuk (trazadura milako 15eko gehieneko pendizak, informazio-azterlanean milako 25ekoak aurreikusten ziren arren, azpiegitura salgaietarako trenetarako bateragarria izan dadin) eta ingurumen deklarazioan ezarritako zehaztapenen betetzea direla eta, nabarmentzeko moduko atzerapena gertatu da proiektuak egin eta izapidetzeko garaian.

1. tarteari dagokion oinarritzko proiektutik, bi eraikuntza-proiektu idatzi ziren: Castejón-Cadreita eta Cadreita-Alesbes. Horietako bigarrena, oinarritzkoaren aldean aldaketa garrantzitsurik ez dagoenez, 2011ko apirilaren 19an onetsi zen behin betiko. Hori dela eta, obrak kontratatzeke espedientea hasi ahal izan zen, halako moduz non 2011n obrei ekin baitzitzaien.

Lehenengo azpi-tartean (Castejón-Cadreita), aldaketa gehiago egin behar izan ziren, informazio publikoko izapidearen ondorioz. Hori dela eta, eraikuntza-proiektua 2011ko abenduaren 31n onetsi zuen ADIFek, eta obrak 2012ko uztailaren 31n onetsi ziren.

Gainerako tartean (Alesbes-Erriberri, Erriberri-Tafalla, Tafalla-Arrizabalaga eta Arrizabalaga-Ezkirotz), informazio-azterlanaren aldean egin diren aldaketak handiagoak izan dira. Horrenbestez, gaur arte ezin izan dira informazio publikora atera.

Nafarroako Gobernuaren Sustapen Ministerioarekin lan egiten ari da obren exekuziorako erritmoa berrezartze aldera. Aurreikusita dago hemendik gutxira abiatzea 2. tarteari (Alesbes-Erriberri) eta 3. tarteari (Erriberri-Tafalla) dagozkien oinarritzko proiektuen informazio publikoko izapidea.

Iruñean, 2013ko apirilaren 2an

Sustapeneko kontseilaria: Luis Zarraluqui Ortigosa

Galdera, Nafarroak Estatuari egin beharreko ekarpena bideratutako 2012ko kontusailari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Maiorga Ramírez Erro jaunak egindako galderaren erantzuna, Nafarroak Estatuari egin beharreko ekarpena bideratutako 2012ko kontusailari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko martxoaren 11ko 27. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko apirilaren 9an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak

idatziz erantzuteko galdera egin du 2012ko "Nafarroak Estatuari egin beharreko ekarpena" izeneko kontusailarekin lotutako zenbait gairi buruz (PES-0024). Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuak: Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilariak:

1. Kontusailaren betetze-maila 2012ko abenduaren 31n, kontusailerako hasiera batean aurreikusitako kontzeptuan.

2012an zehar, Estatuaren Administrazio Orokorreko ekarpen ekonomikoaren kontzeptuan zeuden betebeharrak 520.686.640 euro egiten zuten.

	Hasierako kreditua	Aitortutako betebeharra	Betetzea (%)
160000 16100 4000 941100 Estatuarentzako ekarpena	534.870.210,00	520.686.640,00	% 97,35

2. Kontusailaren guztizko betetze-maila, egingadako aurrekontu-aldaketak justifikatzen dituzten arrazoiak zehaztuta.

	Hasierako kreditua	Aldaketak	Bateratua	Betebeharra	Betetzea (%)
160000 16100 4000 941100 Estatuarentzako ekarpena	534.870.210,00	(10.913.656,21)	523.956.553,79	520.686.640,00	99,38

2012an zehar, kontusailak bi aurrekontu-aldaketa izan zituen, biak ere abuztuan:

Lehenengoa, 8.463.895,82 eurokoa, Nafarroako Aurrekontu Orokorretako beste kontusail batzuekin batera, Osasun Departamentuko kontusail hauek finantzatzeko erabili zen:

Kontusaila	Zenbatekoa
544000 52290 2213 312300 Protesiak	2.350.000
544001 52400 2213 312300 Protesiak	200.000
544002 52500 2213 312300 Protesiak	150.000
544000 52290 2215 312300 Sendagaiak	10.600.000
544001 52400 2215 312300 Sendagaiak	1.640.000
544002 52500 2215 312300 Sendagaiak	360.000
544000 52290 2286 312300 Laborategirako produktu kimikoak	650.000
544001 52400 2286 312300 Laborategirako produktu kimikoak	350.000
547001 52300 2286 312200 Laborategirako produktu kimikoak	600.000

Bigarren aldaketa, 2.449.760,39 eurokoa, egin zen "Maileguen interesak eta bestelako eragiketak" izeneko 112003-11430-3101-951100 kontusailaren kreditua zabaltzeko.

Kreditu zabalpen horien arrazoia izan zen aipatutako kontusailan ez zegoela sortutako behar handiagoei erantzuteko behar adina diru.

3. Kontusail horretan hasiera batean aurreikusitakoaren eta kontzeptu horrengatik egiaz bete denaren arteko aldea, halakorik bada, ekarri duten arrazoiaren justifikazioa eta azalpena.

Bosturtekoaren oinarri-urteko urte desberdinetan, Nafarroak Estatuari ordaindu beharreko ekarpena ezarri da oinarri-urteko ekarpenerako gaurkotze-adierazlea aplikatuz; kasu honetan, 2010ekoa. Behin-behineko gaurkotzearen adierazlea finkatzen da Nafarroak eta Estatuak tributuen bidezko diru-sarrerak direla-eta dauzkaten aurreikuspenen arabera. Aurreikuspen horiek, izan ere, kasuko urterako Estatuako Aurrekontu Orokorretan jasota daude, bosturtekoaren oinarri-urteko kontzeptu berdinen arabera. Eragiketa hori bi adminis-

trazioek adostu behar dute Nafarroak urtero ordaindu beharreko ekarpena finkatzeko.

Nafarroako Aurrekontu Orokorretarako proiektuan Estatuarentzako ekarpenaren kontusailean jarri beharreko diru-kopuruari buruzko aurreikuspena Ekonomi eta Ogasun Departamentuaren kalkulua berekietan oinarritzen da, Estatutik espero dituen diru-sarreraren arabera eta Koordinazio Batzordeak hartutako erabakiei jarraituz ekarpenaren kalkuluan eragina izan ditzaketenean beste inguruabar batzuen arabera. Esate baterako, Nafarroak poliziaren arloan betetzen dituen eskumenen kostuaren balorazioa eta Nafarroak Estatuaren Autonomiaren aldeko eta Mendekotasunari Arreta Eskaintzeko Sistemaren dotazioetan daukan parte-hartzea. Hala eta guztiz ere, aipatu dugun bezala, ekarpen hori urtero adostu behar duten bi administrazioek.

2012. urterako, 2011ko amaieran hauteskunde orokorrak izan baitziren, Estatuak ekainaren 30ean onetsi zituen aurrekontuak, eta une horretan adostu zen 2012rako behin-behineko ekarpena, eta orduan jakin zen "160000-16100-4000-941100

Estatuarentzako ekarpena” kontusailak aurrekontu-gaindikin bat bazuela, bestelako gastu-beharrei erantzuteko erabiltzeko modukoa.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko apirilaren 3an

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enpleguko kontseilaria: Lourdes Goicoechea Zubelzu

Galdera, departamentu desberdinetako irisgarritasun-erregelamenduak eta -planak idazteari buruzkoa, Irisgarritasun Unibertsalari eta Ororentzako Diseinuari buruzko 5/2010 Foru Legeak ezartzen duen moduan.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Txema Mauleón Echeverría jaunak egindako galderaren erantzuna, departamentu desberdinetako irisgarritasun-erregelamenduak eta -planak idazteari buruzkoa, Irisgarritasun Unibertsalari eta Ororentzako Diseinuari buruzko 5/2010 Foru Legeak ezartzen duen moduan, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko martxoaren 22ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko apirilaren 16an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko kidea den foru parlamentari Txema Mauleón Etxeerría jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du jakiteko idazketaren zein fasetan dauden departamentu desberdinetako irisgarritasun-erregelamenduak eta -planak, Irisgarritasun Unibertsalari eta Ororentzako Diseinuari buruzko 5/2010 Foru Legeak ezarritakoak (8-13/PES-00038). Hauxe da Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

2012ko uztailean eta abuztuan, Lehendakaritza eta Justizia zuzendaria Corminekin bildu zen, Irisgarritasun Unibertsalaren eta Ezgaitasunen bat duten Pertsonen Aukera-berdintasunaren Sustapenerako Kontseilua bultzatze aldera. Egindako bileren ondorioz, kontseilu hori 2012ko urriaren 1ean biltzeko deialdia egin zen. Kontuan izanda, urte bereko ekainaren amaieran gobernua aldatu

zela, kontseiluko kide berriak aurkeztu ondoren, kontseiluaren barne-erregelamendua onetsi zen eta lantalde tekniko bat eratu zen lanak ahal den guztian arintze aldera.

Irisgarritasun unibertsalerako lantalde hori (Nafarroako Gobernuako departamentuetako, Cormineko eta Aenorreko ordezkariak parte hartzen dute bertan) bost aldiz bildu izan da, Lehendakaritza eta Justizia zuzendari nagusiak koordinatuta, Irisgarritasun Unibertsalaren eta Ezgaitasunen bat duten Pertsonen Aukera-berdintasunaren Sustapenerako Kontseiluko idazkaria baita:

- 2012ko urriaren 16an.
- 2012ko azaroaren 15ean.
- 2012ko azaroaren 28an.
- 2013ko otsailaren 6an.
- 2013ko martxoaren 22an.

Lehenengo erabaki zen lantaldeko ordezkari guztiek adostutako galdera-sorta bat prestatzea, departamentu guztietan informazio uniforme biltze aldera. Helburua zen Nafarroako Gobernuaren une jakin bateko argazkia ateratzea. Horretarako, irisgarritasunaren ebaluaziorako fitxa batzuk erabili ziren, DALCO UNE 170001-1 baldintzen arabekoak.

Honakoak dira gaur arte ebaluazio-fitxak igorri dituzten departamentuak:

- Justizia.
- Toki-administrazioa.

- Kultura (Liburutegietako arazo nagusiak aipatu dira, fitxak bete gabe).
- Hezkuntza (Santo Domingoko Aldapako erakina).
- Sustapena (Alhóndiga eta San Ignazio kaleetako erakinak).
- Osasuna.
- Nafarroako Enplegu Zerbitzua.

Aurreikusita dago apirilean zehar gainerako departamentuetako fitxak jasotzea.

Bestalde, erregelamendu bidezko garapenari dagokionez, Irisgarritasun Unibertsalari eta Orotentzako Diseinuari buruzko apirilaren 6ko 5/2010 Foru Legeko 3. artikuluan ezarritako aplikazio esparruari jarraituz, lan arloen honako banaketa egin zen:

a) Telekomunikazioak eta informazioaren gizartea. Pedro Loitegui Irurzun, Lehendakaritza eta Justizia Zuzendaritza Nagusikoa.

b) Urbanizatutako gune publikoak, azpiegiturak eta eraikuntzak. Javier Redín Sarasola, Lurraldearen Antolamenduko Zuzendaritza Nagusikoa.

c) Garraioak. Javier Redín Sarasola, Lurraldearen Antolamenduko Zuzendaritza Nagusikoa.

d) Jendearentzat eskuragarri dauden ondasunak eta zerbitzuak. Pedro Grávalos Falces, Gizarte Politika eta Kontsumo Zuzendaritza Nagusikoa. Carmen Garde Garde, Osasuneko Zuzendaritza Nagusikoa. Itziar Iriarte Pérez de Eulate, Turismo eta Merkataritza Zuzendaritza Nagusikoa.

e) Administrazio publikoekiko harremanak. Pedro Loitegui Irurzun, Lehendakaritza eta Justizia Zuzendaritza Nagusikoa. José Ignacio Bombín Silvestre, Toki Administrazioeko Zuzendaritza Nagusikoa.

f) Unibertsitateak eta hezkuntza-sistema. Begoña Equiza Urtasun, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen Zuzendaritza Nagusikoa.

Espero da apirilean zehar a) eta e) arloak gartzeta, haiek Irisgarritasun Unibertsalaren eta Ezgaitasunen bat duten Pertsonen Aukera-berdintasunaren Sustapenerako Kontseiluaren hurrengo bileran aurkezteko. Apirilaren amaieran egingen da bilera hori. Halaber, aurreikusita dago d) puntuari buruzko zirriborro bat aurkeztea.

Iruñean, 2013ko apirilaren 15ean

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko kontseilaria: F. Javier Morrás Iturmendi

Galdera, Elizondoko saihebidia egiteko lanei gehitutako zubia eraikitze-ko eta amaitzeko epeen gaineko aurreikuspeni buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Txentxo Jiménez Hervás jaunak egindako galdearen erantzuna, Elizondoko saihebidia egiteko lanei gehitutako zubia eraikitze eta amaitzeko epeen gaineko aurreikuspeni buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko martxoaren 22ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko apirilaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervás

jaunak informazioa eskatu du Elizondoko saihebidia egiteko lanei gehitutako zubia eraikitze eta amaitzeko epeen gaineko aurreikuspeni buruz (PES-40/13). Hauxe da Sustapen kontseilariaren erantzuna:

Aipatu behar da parlamentari berak kontsulta bera egin zuela 2013ko otsailaren 22ko informazio eskaeran (PEI-76).

Sustapen Departamentuak gaiari buruzko informazio egokia eman zion orduan. Berriki egindako informazio eskarian emandako erantzuna errepikatuko dut:

“Elizondoko saihebidetako zubiaren proiektua idazteko, aurrez Iparraldeko Konfederazio Hidrografikoarekin aztertu behar izan da hartu beharreko eraikuntza-konponbidearen egiturak izan deza-

keen eragin hidraulikoa. Halaber, Ingurumen Zerbitzuarekin aztertu behar izan da zubiaren ingurumen-eragina, alderdi horiek zubia eraikitzeko kontratazio-baldintzetan eta baldintza-orrietan sartzeko. Horren bidez, izan ere, bidezkoak diren baimenak eta eraikuntza-proiektuaren aldeko tostenak bermatu nahi dira, eraikuntza-proiektua idazten denerako.

Behin alde aurreko lan horiek eginda, 2012ko martxoaren 5ean, Herri-lanen Zuzendaritza Nagusiak baimena eman du "Iruñita-Elizondo saihebi-dea eta N-121-B errepide zaharra lotzeko zubia eta lan osagarriak egitea" proiektua idazteko kontratazio-espeditentea izapide dadin. Sei hilabeteko epea ematen da hura egiteko eta lizitazio prezioa 72.600 eurokoa da (BEZa barne), 2013rako luza-

tutako 2012ko Aurrekontuetako "Azterlanak eta proiektuak" izeneko 610000-61310-6091-453200 kontusailaren kargura.

Obra hori egiteko exekuzio epeei dagokienez, eraikuntza-proiektuan finkatuko dira, obran jartze-ko baldintza teknikoen arabera. Nolanahi ere, 12 hilabetez gorako epea kalkulatu da.

Behin eraikuntza-proiektua idatzita, exekuzioaren hasiera etorkizuneko Nafarroako Aurrekontuetan behar diren aurrekontu-baliabideak egotearen pentzutuan egonen da.

Iruñean, 2013ko apirilaren 10ean

Sustapeneko kontseilaria: Luis Zarraluqui Ortigosa

Galdera, anbulantziak Ubarmin klinikan sartzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Patxi Leuza García jaunak anbulantziak Ubarmin klinikan sartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko martxoaren 22ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko apirilaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Atxiki gabeko foru parlamentari Patxi Leuza García jaunak informazioa eskatu du anbulantziak Ubarmin Klinikara iristeko eta sartzeko bidea alda-

tzeari buruz (PES-42/13). Hauxe da Sustapen kontseilariaren erantzuna:

Anbulantziak Ubarmin Klinikara iristeko eta sartzeko bidea aldatzeko erabakia ez zen departamentu honena izan. Izan ere, klinika horretara iristeko errepidea, NA-150 errepidean dagoen biribilgunetik aurrerakoa, ez da Foru Komunitateko errepideen sarekoa eta, horrenbestez, ez da departamentu honen eskumenekoa.

Gure iritziz, hiri trafikoa antolatzearekin lotutako gai bat izan da, udal eskumenekoa. Hori da gai hori dela eta esan dezakedan guztia.

Iruñean, 2013ko apirilaren 10ean

Sustapeneko kontseilaria: Luis Zarraluqui Ortigosa

Galdera, Nafarroako Foru Komunitateko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako 2013-2014 ikasturterako aurrematrikulazio kanpainari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Amaya Zarranz Errea andreak egindako galderaren erantzuna, Nafarroako Foru Komunitateko Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetako 2013-2014 ikasturterako aurrematrikulazio kanpainari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko otsailaren 25eko 21. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko apirilaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Nafarroako Parlamentuko Parlamentu-talde Popularrari atxikitako foru parlamentari Amaya Zarranz Errea andreak idatziz erantzuteko galdera egin du 2013/2014 ikasturterako haur hezkuntzako aurre-matrikulazio kanpainarekin lotutako zenbait

gairi buruz (8-13/PES-00028). Hauxe erantzun dio Nafarroako Gobernuak Hezkuntzako kontseilariak, dagokion zerbitzuak egindako txostenean oinarriturik:

– 6.437 haurretatik 106k ez dute ikaspostua lortu 2013/2014 ikasturtean haur hezkuntzako lehen mailarako, lehen aukera gisa hautatu duten ikastetxean.

– 106 haur horietatik 55ek bigarren aukera gisa hautatu duten ikastetxean lortu dute ikaspostua.

– 6.437 haurretatik 29k ez dute ikasposturik lortu eskatutako ikastetxeetan.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko apirilaren 15ean

Hezkuntzako kontseilaria: José Iribas Sánchez de Boado

Galdera, Txulapaingo uraren goi-hornidura dela-eta Toki Azpiegituren Planean aurreikusitako jarduketa gauzatzeari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Txentxo Jiménez Hervás jaunak egindako galderaren erantzuna, Txulapaingo uraren goi-hornidura dela-eta Toki Azpiegituren Planean aurreikusitako jarduketa gauzatzeari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko martxoaren 22ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko apirilaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Aralar-Nafarroa Bai parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Txentxo Jiménez Hervás jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du jakin

nahi baitu noiz daukan departamentuak aurreikusita baimentzea Txulapaingo uraren goi-hornidura dela-eta Toki Azpiegituren Planean aurreikusitako jarduketaren gauzatzea –Osinaga eta Aristregi kontzejuetan du eragina jarduketa horrek– (8-13-/PES-00041). Hauxe da Landa Garapeneko Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilariaren erantzuna:

Txulapaingo Udalak egun indarra duen 2009-2012 urteetarako Toki Inbertsioetarako Planean jasota dauka "Txulapaingo horniduraren 5. fasea (Osinaga eta Aristregi):" Inbertsio hori egitea, hasiera batez, 2012. urterako aurreikusita zegoen.

2012ko ekitaldian zehar, Toki Inbertsioetarako Planean izandako uko-egiteen eta baztertezen ondorioz, obren adjudikazio batzuetan izandako bajen ondorioz eta inbertsio batzuk urte anitzeko bihurtzearen ondorioz (2012. eta 2013. urteetako-

ak), halako egoera ekonomiko bat gertatu zen non aukera baitzegoen Planean hasiera batean jasotako obra berri batzuetarako gastu-konpromisoa finkatzeko. Horien artean zegoen "Txulapaingo horniduraren 5. fasea (Osinaga eta Aristregi)" izeneko inbertsioa.

Horretarako, besteak beste, Txulapaingo hornidura-obretarako gastu-konpromisoa finkatzeko izapidetzea hasi zen. Txosten teknikoak 2012ko ekainaren 21ean egin ondoren, espedienteak Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagusiko Kudeaketaren eta Lankidetzaren Ekonomikoaren Zerbitzura igorri zitzaion.

Hala eta guztiz ere, Txulapaingo Udalak ez zuenez zerbitzu horretan aurkeztu 2011ko kontuen itxiera, bideragarritasun ekonomikoari buruzko txostena ezin izan zen 2012ko azaroaren 16ra arte egin, hain zuzen ere Udalak aipatutako kontuak departamentuan aurkeztu eta hurrengo egunera arte.

Argi dago data horretan ez zela egokia 2012rako gastu-konpromisoa finkatzeko prozesuarekin jarraitzea, zeren eta obra ekitaldi horretan egiteko aukerarik batere ez baitzegoen.

2013ko ekitaldian zehar, aurreikustekoa da berriz ere gertatzea, egoera ekonomiko dela-eta, Planean hasiera batean sartutako obra berri batzuetarako gastu-konpromisoak finkatu ahal izatea, eta horrek aukera emanen du aztertzeke, behin jada hitzartuta dauden beste jarduketa batzuen jarduketa osagarrietatik eratorritako lehentasunezko konpromisoak artaturik (sare- eta zolaberritze-lanak batera egitea), bideragarria ote den "Txulapaingo horniduraren 5. fasea (Osinaga eta Aristregi)" obretarako gastu-konpromisoa finkatzea.

Iruñean, 2013ko apirilaren 16an

Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioako kontseilaria: José Javier Esparza Abaurrea

Galdera, jakitekoa gaur egun zenbat pertsonak egiten duten lan gizarte zerbitzuen sektorean, eta zenbatek 2009tik 2012ra bitartean.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Txema Mauleón Echeverría jaunak egindako galderaren erantzuna, jakitekoa gaur egun zenbat pertsonak egiten duten lan gizarte zerbitzuen sektorean, eta zenbatek 2009tik 2012ra bitartean, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko martxoaren 22ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko apirilaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Txema Mauleón Echeverría jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du jakiteko gaur egun zenbat pertsonak egiten duten lan gizarte zerbitzuetan eta zenbatek egiten zuten 2009tik 2012ra bitartean (8-13/PES-0037). Hauxe erantzun du Gizarte Politiketako kontseilariak:

1. Zenbat pertsonak lan egiten dute egun gizarte zerbitzuetako sektorean? Zenbat ziren 2009an, 2010ean, 2011n eta 2012an?

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentuak emandako datuak abiapuntutzat hartuta, Nafarroako Enplegu Zerbitzuak eskura dituen datu baseen arabera, kalkula daiteke zenbat pertsona dauden afiliaturik bai Araubide Orokorrean, bai Langile Autonomoen Araubide Berezi- an, jarduera-epigrafe jakin batean. Gizarte zerbitzuen sektorean zenbat langile dauden afiliatuta finkatze aldera, honako jarduera-epigrafeak hartu dira kontuan:

- 87. epigrafea (egoitza-establezimenduetan laguntza ematea), zeinak honako jarduerak jasotzen baititu:

- Osasun-zainketak ematen dituzten egoitza-establezimenduetako laguntza.

- Adimen-ezgaitasuna, buru-gaixotasuna eta drogamenpekotasuna duten pertsonentzako egoitza-establezimenduetako laguntza.

- Adineko pertsonentzako egoitza-establezimenduetako laguntza.

– Ezgaitasun fisikoa duten pertsonentzako egoitza-establezimenduetako laguntza.

– Egoitza-establezimenduetako bestelako laguntza-jarduerak.

• 88. epigrafea (ostaturik ematen ez den gizarte zerbitzuetako jarduerak), zeinak honako jarduerak jasotzen baititu:

– Gizarte zerbitzuetako ostaturik gabeko jarduerak, adineko pertsonentzat.

– Gizarte zerbitzuetako ostaturik gabeko jarduerak, ezgaitasuna duten pertsonentzat.

– Haurrak egunez zaintzeko jarduerak.

– Gizarte zerbitzuetako ostaturik gabeko bestelako jarduerak.

Abenduaren 31n aipatutako epigrafeetan, bai Araubide Orokorrean, bai Langile Autonomoen Araubide Berezian, afiliatutako langileen kopurua dela eta, honako datuak lortu ditugu:

Araubide orokorra:

	Egoitza establezimenduetako laguntza. Araubide orokorra. 87. epigrafea	Gizarte zerbitzuetako ostaturik gabeko jarduerak. Araubide orokorra. 88. epigrafea
2009/12/31	3440	3814
2010/12/31	3554	3966
2011/12/31	3723	3621
2012/12/31	3973	3500

Langile Autonomoen Araubide Berezia:

	Egoitza establezimenduetako laguntza. Langile Autonomoen Araubide Berezia. 87. epigrafea	Gizarte zerbitzuetako ostaturik gabeko jarduerak. Langile Autonomoen Araubide Berezia. 88. epigrafea
2009/12/31	2	104
2010/12/31	1	106
2011/12/31	1	99
2012/12/31	4	107

Horrenbestez, honakoa da epigrafe horietan ageri diren pertsonen guztizko batura:

2009/12/31: 7.360 pertsona (Araubide Orokorrean afiliatutako 7.254 pertsona eta Langile Autonomoen Araubide Berezian afiliatutako 106 pertsona).

2010/12/31: 7.627 pertsona (Araubide Orokorrean afiliatutako 7.520 pertsona eta Langile Autonomoen Araubide Berezian afiliatutako 107 pertsona).

2011/12/31: 7.444 pertsona (Araubide Orokorrean afiliatutako 7.344 pertsona eta Langile Autonomoen Araubide Berezian afiliatutako 100 pertsona).

2012/12/31: 7.584 pertsona (Araubide Orokorrean afiliatutako 7.473 pertsona eta Langile Autonomoen Araubide Berezian afiliatutako 111 pertsona).

2. Biztanleria aktibo osoaren zer portzentaje egiten dute pertsona horiek 2009-2013 aldian?

Aurreko datuak urte bakoitzeko abenduaren 31n afiliatuta zeuden langileen kopurutik lortu ditugunez, alderaketa egin beharko litzateke data horietan Nafarroako Foru Komunitatean afiliatuta zeuden pertsonen guztizko kopuruarekin.

Baldintza horietan, honako portzentajeak lortu ditugu:

– Araubide Orokorreko 87. eta 88. epigrafeetan afiliatuta daudenak / Araubide Orokorrean guztira afiliatuta daudenak:

2009/12/31: % 3,49

2010/12/31: % 3,63

2011/12/31: % 3,63

2012/12/31: % 3,91

– Autonomoen Araubide Bereziko 87. eta 88. epigrafeetan afiliatuta daudenak / Araubide Berezian guztira afiliatuta daudenak:

2009/12/31: % 0,22

2010/12/31: % 0,23

2011/12/31: % 0,22

2012/12/31: % 0,25

– 87. eta 88. epigrafeetan afiliatuta daudenak / Araubide Orokorrean – Autonomoen Araubide Berezia guztira afiliatutakoak:

2009/12/31: % 2,88

2010/12/31: % 3,01

2011/12/31: % 3,00

2012/12/31: % 3,21

3. Zein da zahar-etxeetako langileen eta etxez etxeko laguntzako behin-behinekotasun tasa?

Ekonomia, Ogasun, Industria eta Enplegu Departamentua da informazio hori ematen diguna. Datuak Nafarroako Enplegu Zerbitzuko kontratuen erregistrotik atera litezke eta enpresaren Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionalaren arabera nahiz langileen lanbide-kategoriaren arabera sailkatzen dira.

Baldin eta informazioa enpresaren Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionalaren arabera sailkatzen bada, arazo hau sortzen da: enpresa batzuek hainbat izaeratako jarduerak egiten dituzte, eta jarduera horietako bat gizarte zerbitzuak dira. Gizarte zerbitzuen epigrafean nahiz beste epigrafe batean egon daitezke, zeren eta Jarduera Ekonomikoen Sailkapen Nazionala kode bakarra baita.

Informazioa langileen lanbide-kategoriaren arabera sailkatzen bada, kategoria batzuetan –zaindariak, OLTak, sendagileak eta abar, esate baterako– datu batzuk aterako liriteke gizarte zerbitzuen sektoreari ez legozkiokeenak, baizik eta osasun

jarduera publiko nahiz pribatuen sektoreari edo gizarte baliabideen jardueren sektoreari, besteak beste.

Horrenbestez, ezin dira galdera horri dagozkion datuak eman, zeren eta lotutako informazioa lerraturik egonen balitzateke eta ez bailuke sektorearen egiazko egoera islatuko.

4. Zenbat hitzarmen mota aplikatzen dira egoitzen esparruan?

Nafarroako Foru Komunitatean bi erregulazio-esparru bereizi behar dira:

- Nafarroako Gobernuaren zentro berekiak: Langileei unean-unean indarra duen funtzio publikoarentzako araudia aplikatzen zaie.

- Gainerako zentroak:

- Adineko pertsonentzako egoitza-zentroen esparruan: Mendetasuna duten pertsonentzako arreta-zerbitzuen eta autonomia pertsonala sustatzearen arloko estatuko VI. esparru-hitzarmena (2012ko maiatzaren 18ko 119. EAO).

- Ezgaitasuna duten pertsonentzako egoitza-zentroen esparruan: Ezgaitasuna duten pertsonen arreta emateko Nafarroako zentro pribatu itunduen sektorerako III. hitzarmen kolektiboa. (160. NAO, 2011ko abuztuaren 12koa).

- Enpresek eta langileen ordezkariak sinatzen dituzten hitzarmen kolektiboak eta enpresa-itunak.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko apirilaren 16an

Gizarte Politiketako kontseilaria: Íñigo Alli Martínez

Galdera, Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuko aldi baterako kontratudun langileei buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Txema Mauleón Echeverría jaunak egindako galderaren erantzuna, Foru Komunitateko Administrazioaren zerbitzuko aldi baterako kontratudun langileei buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko martxoaren 22ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko apirilaren 17an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Izquierda-Ezkerra parlamentu-taldeko foru parlamentari Txema Mauleón Echeverría jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du informazioa eskatu nahi baitu Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioari 2008tik 2013ra bitarteko aldi baterako langileei buruz (PES-036/13). Hauxe da Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariaren erantzuna:

Aldi baterako kontratua duten langileen kopuruari buruzko datuei dagokionez eta langileen guztizkoan egiten duten ehunekoari dagokionez, taula bat erantsi dugu Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioan 2008tik 2013ra bitartean lan egin duten pertsonen buruz, langile finkoak eta aldi baterakoak bereizita eta departamentuen eta erakunde autonomoen arabera sailkatuta.

Informazioa lortu da urte bakoitzeko pertsonak/urtea kalkulua eginda, salbu eta 2013ko urtea-

ren kasuan; izan ere, datu hori martxora arte zegoen batez bestekoari dagokio, hilabete hori barne dela.

Urte horietan foru administrazioari behin-behinekotasuna gutxitzeko hartu diren neurriek dagokionez, erantsitako informazioari ondorioztatzen da aldi baterako langileek guztizkoan egiten duten portzentajea 2008ko % 34,83tik 2013ko % 25,08ra aldatu dela.

Emandako informazioari ondorioztatzen da Nafarroako Gobernuaren lan arloko politikak kontratazio finkoa lehenetsi duela, eta 2008tik 2012ra 2.189 langile finko gehiago daudela (1.932, 2013ko lehenengo hiruhilekoan); epe berean, aldi baterako kontratuen kopuruak, berriz, behera egin du.

Hartara, 2009an, 2010ean, 2011n eta 2012an aurreko urtearen aldean aurkitu den langile-igoera langile finkoen nabarmentzeko moduko handitze baten bitartez gauzatu zen, betiere kontratazio mota hori lehenetsi baita aldi baterako enpleguaren kaltetan.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 194. artikuluan eta hurrengoetan ezarritakoa betez.

Iruñean, 2013ko apirilaren 16an

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko kontseilaria: F. Javier Morrás Iturmendi

(Oharra: Aipatutako eranskina eskuragarri dute foru parlamentariak, parlamentu-kudeaketako Ágora sisteman).

Galdera, Leitzako Plazaolaren geltokiko lanak finantzatzeko baliatuko den kontusailari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak egindako galderaren erantzuna, Leitzako Plazaolaren geltokiko lanak finantzatzeko baliatuko den kontusailari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko martxoaren 22ko 33. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko apirilaren 29an

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak idatziz erantzuteko galdera egin du Leitzako Plazaolako geltokiari buruz (PES-00039). Hauxe erantzun du Nafarroako Gobernuo bigarren lehendakariorde, eledun eta Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilariak:

Leitzako Plazaolako geltokian egin beharreko jarduketa Nafarroako Landa Garapen Iraunkorrari buruzko 2010etik 2014ra bitarteko Programako Mendi Atlantikoen Eskualdeko Planaren barruan sartuta dago, "Leitzako Plazaola trenbideko antzinako geltokian esku-hartzea, turismorako baliagarri izan ahal dadin" izendapenarekin. Aurreikusita

ko kostua 300.000 eurokoa da eta Nafarroako Gobernuak finantzatuko du, bi zati berdinetan, 2012an eta 2013an, aurrez Nafarroako Foru Komunitateak eta ministerio eskudunak aplikazioa arautzeko hitzarmena sinatuta.

Hala eta guztiz ere, Nafarroako Landa Garapen Iraunkorrari buruzko 2010etik 2014ra bitarteko Programari dagokionez, 2012ko abuztuaren 8an, Nekazaritza, Elikadura eta Ingurumen Ministerioak Landa Garapeneko, Ingurumeneko eta Toki Administrazioiko Departamentuari jakinarazi zion Landa Ingurunearen Garapenerako abenduaren 13ko 45/2007 Legearen aplikazioa gerarazi egin beharra zegoela, lege hori aldatzen ez zen bitartean, hura bere aplikazioan operatiboago eta eraginkorrago egite aldera.

Horrenbestez, aldaketa hori egiten ez den bitartean eta ministerioarekin hitzarmena sinatzen ez zen bitartean, ez dago berariazko kontusailik jarduketa hori egiteko.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 194. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko apirilean

Kulturako, Turismoko eta Erakunde Harremanetako kontseilaria: Juan Luis Sánchez de Muniáin Lacasia

Galdera, Bidasoako Bide Berdeko Legasa-Doneztebe zatiaren titulartasunari eta bertan izandako luizia konpontzeko arduradunari buruzkoa.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Miren Julia Aranoa Astigarraga andreak egindako galderaren erantzuna, Bidasoako Bide Berdeko Legasa-Doneztebe zatiaren titulartasunari eta bertan izandako luizia konpontzeko arduradunari buruzkoa, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko apirilaren 9ko 37. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko apirilaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Miren Aranoa Astigarraga andre-

ak informazioa eskatu du Bidasoako Bide Berdeko Legasa-Doneztebe tartearen titularitateari buruz (PES-43/13). Hauxe da Sustapen Departamentuaren informazioa:

Bidasoako Bide Berdearen tarte hori, Legasa eta Doneztebe artekoa, ez da Nafarroako Gobernuaren titularitatekoa, eta, horrenbestez, haren mantentzea ez dagokio gobernu horri.

Bestalde, ohartarazi behar da Bertizko Partzuegoaren ekimenez, orain dela gutxi, Construcciones Mariezcurrena enpresak ekin ziola parlamentu-galdera hau eragin duen luiziaren ondorioei konponbidea emateari.

Iruñean, 2013ko apirilaren 23an

Sustapeneko kontseilaria: Luis Zarraluqui Ortigosa

Galdera, jakitekoa Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak erantzun ote dion zenbait toki entitatetako ordezkariak Yolanda Barcina lehendakariarekin bilera egiteko aurkezturiko eskariari.

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 114.1 artikuluan ezarritakoa betez, agindu dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Víctor Rubio Martínez jaunak egindako galderaren erantzuna, jakitekoa Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuak erantzun ote dion zenbait toki entitatetako ordezkariak Yolanda Barcina lehendakariarekin bilera egiteko aurkezturiko eskariari, Foru Diputazioak emana. Galdera argitaratu zen 2013ko apirilaren 9ko 37. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean.

Iruñean, 2013ko apirilaren 30ean

Lehendakaria: Alberto Catalán Higuera

ERANTZUNA

Bildu-Nafarroa parlamentu-taldeari atxikitako foru parlamentari Víctor Rubio Martínez jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du jakiteko Nafarroako Gobernuak zer egin duen 2011ko azaroko lehenengo astean gertatu eta Nafarroako mendial-

deko herri batzuetan kalteak eragin zituzten uholdeei dagokienez (PES-046/13). Hauxe erantzun du Lehendakaritza, Justizia eta Barne kontseilariak:

Galdegileak aipatzen dituen egitateen modukoen aurrean Nafarroako Gobernuak egiten duena da eragindako kalteak analizatu eta haiei ahal bezain laster konponbidea emateko jarduerak abiatu. Gure iritziz, eraginkorragoa da hori hedabideetan eragiteko antolatutako bilera politiko batzuk egitea baino.

Kasu honetan, 2011ko azaroan, Landa Garapeneko Zuzendaritza Nagusiko arduradunek eta Baztan, Areso, Goizueta, Lesaka, Leitza eta Zugarramurdiko udaletako ordezkariak bilera bat egin zuten, eta hartan Leitza, Areso eta Baztango udallerrietan izandako kalteei buruzko txostenak aurkeztu ziren.

Topaketa horretan zehar, departamentuko teknikariak jakitera eman zuten 2011ko azaroaren

5eko eta 6ko uholdeek eragindako kalteen esparrua eta magnitudea ezin zirela nahikotzat jo haiei konponbidea emateko berariazko kontusail bat gaitzeko, ikusita uholdeak zein esparru geografikotan izan ziren eta nolako kalte zehatzak eragin zituzten.

Basoen Kudeaketarako Atalak jarduketa batzuk proposatu eta bere gain hartu zituen; esate baterako, Enekoneako eta Baierrengo mendi-bideei edo Olaberritik Bagordira doan mendi-bideari dagozkienak. Lan horietarako 11.050 euroko aurrekontua egin zen.

Era berean, Toki Administrazioako Zuzendaritza Nagusiko arduradunek bilerak egin zituzten uholdeek kaltetutako gehienekin. Bilera horien ondori-

oz, bederatzi obra sartu ziren, presako izaerarekin, Toki Inbertsioetarako Planean. Obra horiek egin eta 2012ko aurrekontuen kargura ordaindu ziren.

Lan gehienak kale-garbiketarekin eta zubiak eta bideak leheneratzearekin lotutakoak izan ziren, eta Areso, Leitza, Baztan, Lesaka, Goizueta, Gaintza, Etxalar eta Arribe-Atallun egin ziren, 125.157,95 euroko kostuarekin.

Hori guztia jakinarazten dizut Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 190. artikulua betez.

Iruñean, 2013ko apirilaren 30ean

Lehendakaritza, Justizia eta Barne Departamentuko kontseilaria: F. Javier Morrás Iturmendi